

Tinta beltzez jantzitako agurra, Martin Ugalderi

Alain Laiseka

Deia, 2004-10-06: 57.

Duda barik, "Berria" kazeta zen atzo Martin Ugalderen heriotzaren inguruan informazio iturri erreferentea. Euskarazko egunkarira oso lotua zegoen andoaindarra, bera izan baitzen sortzaileetako bat. "Martin Ugalde hil da" zihoen azaleko titularrak, letra handi eta deigarritz. Portadaren ia erdia betetzen zuen Martin Ugalderen argazki batek lapurtzen zion, ordea, titularrari protagonismoa. Gehigarri berezia prestatu zuen "Berriak" Martin Ugalderen heriotzaren berri emateko. Bere bizitzaren inguruko xehetasun guztiak eta jorratutako esparruak nabarmentzen ziren bertan: Martin Ugalde kazetaria, martin Ugalde Idazlea edota Martin Ugalde politikaria.

Iritzi askoren artean txertatzen ziren Iñaki Uria eta Joan Mari Torrealdairenak. Bere obraren garrantzia azpimarratzen zuten biek ala biek. "Martin bere obra da" zioen Torrealdai, bere lana autobiografia dela eta, beraz, gure artetik fisikoki aldendu bada ere, bere lanen bitartez jarraituko duela gurekin. Uriaren berbek dardara eragiten dute. "Ez zait malkorik geratzen martinen heriotzan. Denak bota nituen "Egunkaria" itxitakoan guardia zibilek Martin hil zela esan zidatenean, tortura eta tortura artean". Bihotzerako bidea daramate berbok, baina eztarrian gelditzen dira gorapilatuta.

"Martin Ugalde, un puente en pos de la nueva Euskal Herria", zioen "Gara" kazetaren barruko titularrak. Euskal Herriaren eraikuntzan Martin Ugaldek jokatu zuen zubigile papera nabarmentzen du. Euskal Herrian gerra ostean ziren, eta akaso ezabatu ez diren, sentsibiltate ezberdinak helburu berdin baten izenean lanean jartzen ahalegindu zen Martin.

Euskal kulturaren alde egindako lana azpimarratzen du "El Correo"k. "El diario vasco"k, ordea, ipuin berriaren sortzailea izan zela nabarmentzen du bere orrialdeetan "El creador de los primeros cuentos modernos en euskera", zioen.